

## ELKARRIZKETA

Adolfo Rey Gómez

FVEMko kudeatzaile zuzendaria

# “Aurrerantzean datorrenari aurre egiteko prest egon behar gara”

*Metalgintza merkatua zeharo aldatu da: susperraldian dauden herrialdeek lehia sutsua ezarri dute merkatuan, Txinak aurrera eramandako dumping-a, besteak beste. 2008ko krisi ekonomikoa lehertu aurretik ere bagenekien gure enpresen ahulezia zenbaterainokoa zen teknologiari zegokionez, zenbaterainoko menpekotasuna zuen energiaren prezioarekiko. Ez dirudi, baina, sektorean gauzak txarto doazenik; izan ere, pixkanaka-pixkanaka jarduera areagotzen hasi da. Metalgintza da Bizkaiko industriaren sektore nagusia, eta, horretan, bi mila enpresa baino gehiago biltzen dira.*

**Altzairugintza funtsezko alorra izan da EAEko ekonomian; azken urteetan, baina, atzerakada nabarmena bizi izan du. Zein da euskal altzairugintzaren etorkizuna?**

Azken krisi ekonomikoa mundu mailakoa izan da, eta alor guztietan eragin du. Gogoratu beharra daukagu EAEn izan zela BPGd-ren jaitsiera handiena Estatuan, eta enpleguak sufritu egin

zuen. Zentzu horretan, industria-produkzioaren behar-kada Estatukoa baino handiagoa izan zen, eta enpleguaren jaitsiera esanguratsua ere izan genuen altzairuaren alorrean.

Hori guztia esanda, esan beharra dugu altzairua gorakada txiki baina etengabea ari dela izaten 2015etik aurrera, eta hori adierazle ekonomiko garrantzitsuenetan antzeman dezakegu: BPGd, Industria-produkzioaren indizea eta enpleguaren sorrera.

**Altzairuaren industriak EAEko alor nagusia izaten jarraituko du?**

Eusko Jaurlaritzak apustu argia egin du 2020an Euskadiko BPGd-ren %25 Industrietatik ekartzeko, eta, horretarako, 2.000 milioi eurotik gorako babes-plana garatu du. Horrek industrian enplegua sortzea eragingo du, eta, gainera, gainerako alorretan ere enplegua sortzea ahalbidetuko du. Horrenbestez, argi dago garapen industrialak helburua dela herri gisa; metalaren industriak EAEko ekonomian erreferente izaten jarraitu behar du, hots, EAEko enplegu eta aberastasun sorreraren traktorea.

**Alabaina, gaur egun mundu globalizatu batean bizi gara, eta munduko beste puntako edozein enpresa izan daiteke gure lehiakidea. Ildo horretatik, lehiakorrak al gara?**

Altzairugintza oso anitza den alorra dugu, eta, bertan, hainbat azpialor daude; esaterako, alde batetik, altzairugintza klasikoa, makina erreminta, automobilgintza, ontzigtza edota aeronautika ditugu, eta, bestetik, instalatzaile elektrikoak eta muntaketa metalikoak. Beraz, aniztasun hori dela-eta, lehiakortasunaz orokorrean hitz egitea ez litza-teke zuzena: automobilgintza eta makina erreminta bezalako alorrak oparoak izaten ari dira, baina, kontrara, ontzigtza eta horren atzean dagoen industria une zailean daude.

**Gero eta lehiakorragoak izatea ahalbidetuko diguten gakoetan lan egiten jarraitu behar dugu**

Zentzu horretan, gero eta lehiakorragoak izatea ahalbidetuko diguten gakoetan lan egiten jarraitu behar dugu, adibidez, industria 4.0 delakoan, nazioartekotzean edota berrikuntzaren edozein esparrutan –produktua, prozesua, kudeaketa eredu...–.

**Zeintzuk dira euskal burdintzak topatu ditza-keen oztopo nagusiak?**



Adolfo Rey FVEMko kudeatzaile zuzendari izendatu dute uda aurretik.

Suspertzen ari diren herrialdeek eragindako lehiak aspaldi ari gara hitz egiten, produkzio kostu txikiagoekin eta ingurumenaren edota lan-baldintzen alorreko eskakizun gutxiagorekin. Hori horrela da, eta horren aurka lehiatzen jarraitzen dugu, lehen aipatutako gakoetan buru-belarri lan egiten; izan ere, horrek sendotzen du gure lehiakortasuna. Burdingintzaren kasu zehatzean, Txina da lehiakidea; izan ere, munduko altzairu-ekoizle nagusia da, EBren aurretik, eta ekoizpen-kostuen azpitik salten du gure inguruan.

### Handitzea garrantzitsua da, nazioartean presentzia handiagoa edukitzeko

Era berean, beste faktore negatibo bat elektrizitatea da, zalantzarik gabe. Estatuan energia beste herrialdeetan baino garestiagoa da, eta horrek euskal lehiakortasuna oztopatzen du, bereziki industria-herrialdea izanik.

Gure enpresen tamainak ere kezkatzen gaitu. Jakin ba-



FVEMk bazkideen lehiakortasuna sustatzen jarraitu behar duela adierazi du Reyk.

dakigunez, ETEak dira nagusi, eta horrek gure industriaren lehiakortasuna oztopatzen du. Horregatik, handitzea garrantzitsua da, nazioartean presentzia handiagoa edukitzeko.

Bukatzeko, talentua industriara erakartzeko gai izan behar gara: atzerrira irten direnak ekarri, eta unibertsitate zein Lanbide Heziketako zentroetan dauden ikasleei gure alorreko xarma erakutsi.

### Errekuperatzen hasia da metalaren alorra?

Metalaren errekuperazioa gertatzen ari da orokorrean, baina guztiok dakigunez, kasu kezkarriak ditugu inguruan.

BPGd, Industria-produkzioaren indizea edota enpleguaren sorrera bezalako datuek joera positiboa erakusten ditute duela bi urtetik hona, eta aurreikuspenak antze-

koak dira. Baina ezin dugu ahaztu, eta uste dut krisiak egoera zailen aurrean prestatu gaituela, aurrerantzean datorrenari aurre egiteko prest egon behar gara.

### FVEMko kudeatzaile zuzendaria izendatu berri zaituzte. Zeintzuk dira jarritako helburu nagusiak?

FVEMtik gure bazkideen le-

hiakortasuna sustatzen jarraitu behar dugu. Aurretik esan bezala, erronka zehatzak ditugu. Horretarako, gure erakundearen ohiko dinamikak ditugu: urtero 50 prestakuntza-ikastaro baino gehiago eskaintzen ditugu intereseko gaien inguruan, 25 jardunaldi baino gehiago antolatzen ditugu, eta egunero informazioa bidaltzen diegu.

### Talentua industriara erakartzeko gai izan behar gara

Bestalde, eta Bizkaiko Metalaren %63 ordezkatzen badugu ere, alorreko gainerako erakundeetara heldu nahi dugu. Ildo horretan, uda ostean Bizkaiko enpresa garrantzitsu bi ekartzea lortu dugu.

### Alium Consulting hitzarmena sinatu berri duzue. Zertan datza?

Bizkaiko metal enpresen nazioartekotzea eta lehiakortasuna sustatzeko akordioa da. Ni izendatu nindutenetik, IMQ eta Grupo Urbegirekin hitzarmen bana ere sinatu dugu, helburu ezberdinak betetzeko.



2015etik aurrera, metalaren adierazle nagusiek goranzko joera erakutsi dute.